

| | |
|--|--|
| 2016KO AZAROAREN 22AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 22 DE NOVIEMBRE DE 2016 |
|--|--|

Alvaro GONZALEZ PEREZ Jn.

| | |
|------------------------------|---------------------------|
| <u>BERTARATUTAKO BOKALAK</u> | <u>VOCALES ASISTENTES</u> |
|------------------------------|---------------------------|

ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn.
AMIEVA CLEMENTE, Paula and.
AMORRORTU MARTINEZ, Iñaki jn.
ARRAIZA ARAMENDIA, Maite and.
ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
CORIA YANGUAS, Elena and.
COS YAÑEZ, Susana de and.
EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
ESCALANTE REINA, Teresa and. (en sustitución de José Luis Landa Arteche)
GUIJARRUBIA GARCIA, Nerea and. (en sustitución de don Oier Iturralde Fernández)
IBABE BOTELLA, Miguel jn.
ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
PRADA OLLETA, Enrique jn.
RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn.
SAINZ ROBLES, Santiago
URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn.

| | |
|------------------|-------------------|
| <u>IDAZKARIA</u> | <u>SECRETARIO</u> |
|------------------|-------------------|

ASTORKITZA MOTA, Juan Ignacio jn.

| | |
|----------------------------------|----------------------------------|
| <u>GONBIDATUTAKO ARDURADUNAK</u> | <u>RESPONSABLES INVITADAS/OS</u> |
|----------------------------------|----------------------------------|

ALONSO BASALDUA, Ainhoa and.

Getxo, bi mila eta hamaseiko azaroaren 22ko 17:30etan, Udaltzaingoako Bilkura Gelan egindako ez ohiko bilkuran, Zuzendaritza Batzordea bildu zen eta goian zerrendatu diren pertsonak bertaratu ziren.

En Getxo, a las 17:30 horas del día 22 de noviembre de dos mil dieciseis se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Reuniones de la Policía Municipal, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

62.- 2016ko IRAILAREN 27ko OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

62.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DEL 27/09/2016

Zuzendaritza Batzordearen 2016/09/27ko akta onartu aurretik, Amieva andreak hitza hartu du, iraileko edo urriko aktan idazkariaren txosteneko dataren gainean jorratutakoari dagokionez. Nahasmenari buruz, lehendakariak jakinarazi du udal-idazkariak berretsi duela Getxo Kirolak-eko Zerbitzu Juridikoari haren iritziaren berri eman ziola, baina Getxo Kirolak-eko Zerbitzu Juridikoa dela Getxo Kirolak-en iritzi juridikoak erabaki behar dituenak.

Antes de proceder a la aprobación del acta del Consejo Rector del 27/09/2016, toma la palabra la Sra. Amieva y en referencia a lo tratado en el acta de septiembre u octubre, sobre la fecha del informe del secretario en cuanto a la confusión que existía, el presidente informa que el Secretario del Ayuntamiento se reitera que trasladó al Servicio Jurídico de Getxo Kirolak su opinión pero aún así quien tiene la potestad de decidir la opinión jurídica de Getxo Kirolak, es en este caso, el servicio jurídico de Getxo Kirolak.

Amieva andreak aipatu du dataren inguruan eztabaida egon zelako, udal-idazkaria erratu zen ala ez Zuzendaritza Batzordean aurkeztutako txostenean jartzean.

La Sra. Amieva lo comenta por la fecha que se estuvo debatiendo en referencia a si se había equivado o no el Secretario del Ayuntamiento al ponerlo en el informe que se trajo a la Junta Rectora.

Lehendakariak adierazi du ez duela gogoratzen. Hala ere, hark nahi izanez gero, dataren gaia berriz kontsulta daiteke. Amieva andreak baietz erantzun dio, akta horretan idazkariaren txosten hori aipatzen delako eta

El Presidente manifiesta que no lo recuerda pero no obstante, si lo desea se puede volver a consultar el tema de la fecha, contestando la Sra. Amieva que sí por favor, ya que en ese acta viene precisamente que

eztabaidatu zelako Zuzendaritza Batzordera bertaratu aurretik eztabaidan egon ginen Mahaiaren aurrekoa ala gerokoa zen.

Edonola ere, lehendakariak adierazi du puntu hori argitzeke gera daitekeela, eta akta aurkeztu egin behar dela, onartzeko, hala badagokio. Izan ere, onartu beharreko puntuak daude.

Aho batez onartu dute 2016/09/27ko akta.

63.- 2016ko URRIAREN 18ko OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Aho batez onartu dute 2016/10/18ko akta.

64.- ZUZENDARITZAREN HIRU HILEKO TXOSTENA, 15/2010 LEGEAREN LAU.3 ETA BOST.4 ARTIKULUETAN JASOTAKOA BETEZ (2016KO HIRUGARREN HIRUHILABETEA)

Amieva andreak esan du txostenak jasotzen duela fakturen % 2 epez kanpo egindako ordainketak direla, eta atzerapen horien zergatia galdetu du, ez baita arrazoia azaltzen.

Astorkiza jaunak galdetu du zergatia ez agertzeari buruz ari den, eta Amieva andreak atzerapenen zergatiari buruz itaundu dio. Izan ere, beste txostenek zehaztu egiten dute zer enpresa edo faktura diren, eta kasu honetan, ordea, ez.

Astorkiza jaunak erantzun dio Altxortegiak bidalitako txostena bilatu beharko lukeela, faktura horiek zeini dagozkion ikusteko. Amieva andreak galdetu dio arrazoirik dagoen hori ez azaltzeko, eta Astorkiza jaunak erantzun dio orain arte ez dela azalpenik jaso, epe barruan zeintzuk ordaindu diren eta zeintzuk ez adierazten zen soilik eta ez zen zehazten zer faktura zegoen epez kanpo. Hala ere, informazio hori eman eta aurkeztuko da.

65.- VALORIZA FACILITIES, S.A. ENPRESAK EMANDAKO ZERBITZUARI DAGOZKION IRAILA, URRIA ETA AZAROKO FAKTURA 1 ONARPENAREN PROPOSAMENA

Lehendakariak jakinarazi du UNI2 enpresarekiko garbiketa-kontratua indarrean dagoela, eta, hortaz, gaia itxiztat jo daitekeela, haren ustez ez baita horren gaineko azalpenik eman behar. Halaber, Valoriza Facilities, S.A. enpresarekin kitatzeke dituzten fakturak onartzeko proposamena bozketarako aurkeztu du. Fakturak bilera honen deialdiarekin batera bidali dira. Bozketak ondoren jasotako emaitza eduki du.

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV – PSE/EE – EH BILDU)
Abstentzioak: 7 (PP – GUK – C's)

Horrenbestez, proposamena ONARTU da, eta akta honi erantsi zaio.

se hace alusión a ese informe del Secretario y se estuvo debatiendo si era anterior o posterior a la Mesa en la que estuvimos debatiendo antes de venir a la Junta Rectora.

En cualquier caso, el Presidente manifiesta que aunque este punto quede pendiente de aclarar, es necesario someter la aprobación, si procede, el acta ya que existen puntos que merecen su aprobación.

Se aprueba, por unanimidad de las personas presentes, el acta del día 27/09/2016.

63.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DEL 18/10/2016

Se aprueba, por unanimidad de las personas presentes, el acta del día 18/10/2016.

64.- INFORME TRIMESTRAL DE LA DIRECCION EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN LOS ARTÍCULOS CUARTO.3 Y QUINTO.4 DE LA LEY 15/2010 (3º TRIMESTRE 2016)

La Sra. Amieva comenta que en el tema de los pagos realizados fuera de plazo que figuran en el informe, un 2% de las facturas, pregunta a qué se deben estas demoras pues no viene una explicación de la razón de ello.

El Sr. Astorkitza pregunta si se refiere a que no aparece una explicación del porqué, a lo que la Sra. Amieva dice a qué se deben las demoras porque en otros informes si se detallan a qué empresas o que facturas son pero en este caso no viene explicado.

El Sr. Astorkitza participa que tendría que buscar el informe enviado de Tesorería para ver a quien corresponden las facturas, preguntando la Sra Amieva si existe alguna razón por la que no venga explicado, a lo cual contesta el Sr. Astorkitza que porque hasta ahora no se habían traído explicadas, sencillamente figuraban cuales se había pagado en plazo y cuales no, no se especificaban qué facturas eran las que estaban fuera de plazo; no obstante, se facilitará dicha información y se trasladará.

65.- PROPUESTA DE APROBACION DE FACTURAS CORRESPONDIENTES A LOS SERVICIOS PRESTADOS DURANTE LOS MESES DE SEPTIEMBRE, OCTUBRE Y 1 NOVIEMBRE, POR LA EMPRESA VALORIZA FACILITIES, S.A.

El Sr. Presidente participa que dado que está el contrato de limpieza en vigor con la empresa UNI2, se dá por cerrado este tema ya que cree no se necesita dar ninguna explicación al respecto, y se somete a votación la propuesta de aprobación de las facturas pendientes con Valoriza Facilities, S.A., que se han adjuntado con la convocatoria de la presente reunión, y que da el siguiente resultado.

Votos a favor: 10 (EAJ/PNV – PSE/EE – EH BILDU)
Abstenciones: 7 (PP – GUK – C's)

Queda, por tanto, APROBADA la propuesta que se une a la presente acta.

INFORMAZIO OROKORRA

1.- IGERILEKUETAKO LAUZA TXIKIAK

Lehendakariak alderdi politiko bakoitzari banatu dizkio uda honetan Bolue 3 zelaian instalatu diren lauza txikien txostenak.

Andrade jaunak galdetu du zer zenbatekotan esleitu zen eta gehiago erosteko asmorik dagoen. Jakinarazi zaio 59.000,00 eurotan esleitu zela, nahikoak direla uste dela, eta txostenak gomendatzen duela lauza txikiak altzariz hornitzea, hau da, eguzkitakoak jartzea. Halaber, uste dugu berdeguneak haurrentzako aisialdi-eremu gisa arrakasta handiagoa izan duela lauzek solarium-gune gisa baino.

Ibabe jaunak itaundu du igerileku-sasoia abuztuaren erdira arte ala irailaren hasierara arte den eta futbol-taldeek abuztuaren erdian hasten diren. Horrez gain, jakin nahi du zer entrenamendu-erabilera aurreikusi den Bolue 3 zelairako. Futbol-oldea urriaren hasieran hasten da, eskola-garaia hasten denean. Gainerakoei dagokionez, oraindik ez dute eskolarik orokorreen, eta entrenamendu-ordutegiak egunean zehar egokitzen dira, beste espazioetan. Aurten, ez da kexarik egon, Bolue 3 zelaian entrenatzera ohituta daudenak eta bertan egin ezinik beste espazio batean entrenatu behar izan dutenez gain.

Ibabe jaunak adierazi du datorren urterako hobetu beharreko arloa izango dela, eta lehendakariak baietz erantzun dio, espazioen erabilera eskariaren arabera optimizatu behar dela eta sasoi horretan igerilekua dela eskaria.

Prada jaunak azpimarratu du jendeak gainazala beroegi dagoela eta espazioaren kontua aipatzen dituela, eta lehendakariak adierazi du gehiegizko bero hori bero-bolada izan zen bi egunetan baino ez zela antzeman. Egiaztatu da harrizko hondartzan bezainbeste bero metatzen dela, eta bi aldeetan kexa berdinak egon direnez, ziurrenik horregatik ez direla jaso.

Prada jaunak adierazi du, erabiltzaile gisa, egiaztatu duela egun beroetako sentazioa dela gainazal horretako materialak beste gainazal batzuek baino bero gehiago metatzen duela, eta harrizko dago hori aipatu ez izanarekin. Halaber, deigarri gertatzen zaio, gainazal horretan zehazki, temperatura altuagoa dela, berdeguneekin, harriarekin, hormigoiarekin eta zementuarekin konparatuz. Aktan jasotzea nahi du, eta errealitate egiaztatu batekin esaten duela adierazi du.

Hori ikusita, lehendakariak gaiaren berri emango die teknikariei eta sorosleei, horren gaineko informazioa eman diezaguten.

2.- HIRUHILEKOKO KALITATE LABURPENA

Lehendakariak txosten bana banatu dio alderdi politiko bakoitzari.

3.- 2016ko GUTXIENKO KUOTAREN HOBARIAK

INFORMACION GENERAL

1.- LOSETAS PISCINAS

El Presidente reparte a cada uno de los partidos políticos los informes que se han confeccionado en relación a las losetas instaladas este verano en el campo Bolue 3.

El Sr. Andrade pregunta por qué importe se adjudicó y si se tiene intención de adquirir más, informando que por 59.000,00 euros y se cree son suficientes y el informe lo que recomienda es que se amueblen las losetas, es decir, colocar unas sombrillas y el uso del campo verde creemos que ha tenido más éxito como zona de espacimienta para los chavales que las losetas como zona de solarium.

El Sr. Ibabe pregunta si la temporada de piscinas es hasta mediados de agosto o principios de septiembre y los equipos de fútbol empieza a mediados de agosto ¿cómo se preve el uso de entrenamiento en el campo Bolue 3?, contestando el Presidente que se dispone de tres campos y el cuarto de multideporte. La avalancha de fútbol comienza a primeros de octubre cuando comienza la época escolar, los demás, aparte de que no tienen todavía clases en general, los horarios de entrenamiento se adaptan durante todo el día en los otros espacios y este año no ha habido más queja que la de aquel que está acostumbrado a entrenar en Bolue 3 y este año no ha podido, pero ha tenido otro espacio para entrenar.

El Sr. Ibabe supone que será un aspecto a mejorar para el año que viene, respondiendo el Presidente que sí, que al final hay optimizar los usos de los espacios en función de la demanda y la demanda en ese momento es piscina.

El Sr. Prada señala que se está comentando el exceso de calor de la superficie y el espacio, indicando el Presidente que únicamente se ha detectado el exceso de calor en dos días que hubo una ola de calor y se ha comprobado que la retención de calor ha sido la misma que se ha producido en la zona de playa de piedra y las quejas han sido las mismas de un lado que de otro y probablemente no se ha reflejado por eso.

El Sr. Prada participa que él como usuario, ha podido comprobar, que evidentemente cuando hace calor la sensación es que el material en esa superficie retiene más calor que las otras superficies y le sorprende que no se haga referencia a este hecho, llamándole la atención que esa superficie en concreto, en referencia al verde a la piedra, hormigón y al cemento la temperatura era mas elevada y quiere que conste en acta y lo dicen desde una realidad constatada.

En vista de ello, el Presidente dará traslado de esta cuestión a los técnicos y socorristas y que nos informen al respecto.

2.- RESUMEN TRIMESTRAL CALIDAD

El Presidente reparte un dossier a cada uno de los partidos políticos.

3.- BONIFICACIONES CUOTA MINIMA 2016

Halaber, txosten bana eman dio alderdi politiko bakoitzari, 2016 urtean zehar eman diren gutxieneko kuoten hobariekin.

GALDE-ESKEAK

GUKen GALDERAK

Lehendakariak jakinarazi du bi galdera dituela erantzuteke aurreko bileratik, ozta-ozta sartu zirelako epe barruan eta ez zuelako informazioa prestatzeko astirik izan.

Horietako lehena GUK Getxo taldeari dagokio. Horren gaineko informazioa eta erantzuna idatziz ematea eskatu dute.

1.- Energia-eraginkortasunari dagozkion emaitza-aurrezpenen informazioa, GIROA enpresarekin 2014an kontu horretarako egindako kontratazioaren arabera.

Enpresak lortutako aurrezpenari buruz eman digun txostena banatu zaie bertaratuei, eta ikus daitekeenez, EVO izeneko egiaztapen-prozesu baten pean dago. Prozesua nazioartean normalizatuta dago, hasieran egindako aurreikuspen batzuetan oinarritzen da eta ekitaldian zehar izandako klima-baldintzen araberakoa da.

2015ean, aurrezpena % 23koa izan zen gutxi gorabehera, eta aurtengoa txostena ematen digutenean jakinaraziko da. Txostena uda baino lehen igorri ohi da.

2.- Nola liteke Andra Mariko Kiroldegiaren energia-kontsumoaren daturik ez edukitzea kontratazioa egin zen arte?

Lehendakariak azaldu du 2010era arte Kultur Etxeak kudeatzen zuela Andra Mariko Kiroldegia eta Udalaren jabetzakoa dela. Ondorioz, Udalaren energia-kostu orokorraren barruan zegoen, ez zeukan berezko kontagailurik eta Udalaren fakturaziora zihoan zuzenean.

Kudeaketa Getxo Kiroalak erakundeari eskualdatu zitzaion, energia-eraginkortasuneko enpresa bat kontratatuzko prozesua abiarazteko. Horretarako, beharrezkoa zen ikuskapen bat egitea aurrea, eta, hala, kontagailuak instalatu ziren kontsumo-puntu bakoitzean. Hortik aurrera, ezagutu ahal izan genuen Kiroldegiak zenbat kontsumitzen zuen, eta Kiroldegiko kontsumo-puntu bakoitzak kontsumitzen zutena ere: galdarak, frontoia, probalekua... Horregatik ez zegoen kontsumo zehatzen daturik, gastu orokorraren barruan zeuden eta.

3.- Gaur egun dauden aseguruaren gaineko informazioa, Getxo Kiroalak-en instalazioei dagokienez.

Lehendakariak azaldu du daukagun aseguru "arrisku oroko" poliza bat dela, Udalaren Barne Eraentzan zentralizatuta dagoela eta Udalaren eta haren Organismo Autonomoen higiezin guztiak aseguratzeko dituela. Hori horrela egin dugu, itxura denez, merkeagoa delako guztiarentzako poliza bat kontratatzea bakarrarentzako

También reparte un dossier a cada uno de los partidos políticos con el resumen de las bonificaciones de cuota mínima que se han otorgado durante el año 2016.

RUEGOS Y PREGUNTAS

PREGUNTAS GUK

El Presidente informa que tiene dos preguntas pendientes de contestar de la anterior comision que entraron justo de tiempo y no pudo preparar la información.

La primera corresponde a GUK Getxo y solicitan información relativa, cuya respuesta quieren por escrito.

1.- Información sobre los resultados-ahorros en relación a la eficiencia energética conforme a la contratación de la empresa GIROA en 2014 para esta cuestión.

Se reparte a los presentes un informe que nos entrega la empresa sobre el ahorro alcanzado y como se puede observar está sometido a un proceso de verificación que se denomina EVO, que está normalizado internacionalmente y que depende de unas previsiones que se realizan al inicio y que tiene una variable vinculada a la realidad climatológica que surja durante el ejercicio.

Aproximadamente el ahorro durante 2015 fue del 23% y este año cuando nos den el informe que suele ser antes del verano, se facilitará.

2.- ¿Cómo es posible que no hubiera datos sobre consumos energéticos en el Polideportivo de Andra Mari hasta la fecha de esa contratación?

El Presidente informa que el Polideportivo Andra María hasta el año 2010 es gestionado por el Aula de Cultura y pertenece al Ayuntamiento, es decir, está dentro de un global del coste energético del Ayuntamiento, no tenía un contador en sí mismo sino que iba directamente a la facturación del Ayuntamiento.

Cuando se traslada la gestión a Getxo Kiroalak para iniciar el proceso de contratación de una empresa de eficiencia energética es necesario hacer auditoria previa, que se realiza con el EVE, para lo cual se instalan contadores en cada uno de los puntos de consumo; a partir de ahí, es cuando podemos conocer lo que consume todo el Polideportivo y además, lo que consume cada punto de consumo del Polideportivo, desde calderas, frontón el coche, por eso no existían datos sobre consumos concretos porque está englobado en un gasto global.

3.- Información sobre los seguros existentes en la actualidad en Getxo Kiroalak en relación a sus instalaciones.

El Presidente participa que el seguro que tenemos es una poliza "a todo riesgo", que está centralizada en Régimen Interior del Ayuntamiento, que se encarga de asegurar todos los inmuebles que pertenecen al Ayuntamiento y Organismos Autónomos y esto lo hacemos porque parece ser, que sale más barato sacar

kontratatzera baino. Hala ere, ez dugu polizaren irismena ezagutzen, Barne Eraentzari dagokiolako.

4.- Aseguruei dagokienez, eta 2008ko uholdeen ondorioz instalazioak lehengoratzeko egin behar izan zen gastua ikusita, zer aseguru mota zegoen indarrean uholdeen aurretik? Instalazioak eta makinak egokiro estaltzen zituen?

Lehendakariak jakinarazi du poliza “arrisku anitzeko poliza” zela eta ez zela egokiena. Orduko kapitalak ez zeuden eguneratuta, eta, ondorioz, uholdeetan peritu bat kontratatu zen. Perituak erreklamazioa egin zuen, Aseguru Partzuergoarekin batera, eta higiezinaren balioa berriz kalkulatu zuten. Aseguruen Partzuergoak estali ez zuena Aldundiak jarri zuen.

Prada jaunak adierazi du argi dagoela garai hartan polizak ez zuela estaldura egokia ematen, eta lehendakariak nabarmendu du polizak estaldura egokia ematen zuela, baina Aseguruen Partzuergoak aitortu zuela balioa berriz kalkulatu behar zela eta estali zuela gero.

Prada jaunak galdetu du Udalari kosturik eragin zion. Lehendakariak erantzun dio Udalari ez ziola kosturik eragin, eta kostua higiezinaren balioa eguneratzeko peritua izan zela, hau da, kostu bakarra peritua izan zela eta Aseguruen Partzuergoarekin partekatu zutela.

Prada jaunak galdetu du kapitalak eguneratu gabe zeudela esan duenean erantsi gabeko elementuez ere ari den, hala nola pista eta tartana., Lehendakariak ihardetsi dio edukitzaile guztia barne hartzen zela, baina zenbatekoak ez zeudela eguneratuta.

Prada jaunak galdetu dio balioa gutxietsita zegoen. Lehendakariak erantzun dio ezin duela esan balioa gutxietsita zegoenik, poliza kontratatu zen unean zenbatetsi zelako, baina polizak ez badira berrikusten... Prada jaunak itaundu dio kudeaketa-arazoa izan zen, eta lehendakariak erantzun dio zenbaitetan kudeaketa-arazoa bat dela edo eguneratzen joatearen dinamika batean sartzen garela eta aseguruak ez duela jaramon handirik egiten. Hala ere, balioak eguneratu zirenean, ez zen arazorik egon.

Prada jauna poztu egin da hein batean, hainbat kaltetuk ez zutelako Getxo Kirolak-en ordaina edo tratua jaso, eta lehendakariak esan du Getxo Kirolak-i buruz baino ez dezakeela hitz egin.

Prada jaunak adierazi du, normalean aseguruak duen perituaren arabera, akordio ona ala txarra izan dezakezula, eta, antza denez, Getxo Kirolak-ek akordio ona lortu zuela eta oro har gutxietsitako aseguru bat duzunean...

Uriarte jaunak parte hartu du, eta esan du ez dela berdina gutxietsita edo eguneratu gabea, ez baita kontzeptu berdina aseguruentzat.

Prada jaunak adibidetzat jarri du hark ondasun bat izanik bostean aseguratzen badu eta hurrengo urtean bostean

una póliza para todos que para uno solo desconociendo el alcance de la póliza porque pertenece a Régimen Interior.

4.- En relación a los seguros, y dado el gasto que debió realizarse en 2008 tras las inundaciones para recuperar las instalaciones, ¿qué tipo de seguro estaba vigente antes de las inundaciones? ¿cubría adecuadamente instalaciones y maquinaria?

El Presidente informa que el tipo de póliza era una “póliza multirriesgo” y no era la más adecuada; los capitales en aquel momento no estaban actualizados por lo que durante las inundaciones se contrató a un perito que en colaboración con el Consorcio de Seguros hicieron la reclamación y la revaloración de los inmuebles y el resto de lo que no puso el Consorcio de Seguros lo puso la Diputación.

El Sr. Prada dice que queda claro que en esos momentos la póliza no lo cubría adecuadamente, señalando el Presidente que la póliza lo cubría adecuadamente pero el Consorcio de Seguros sí que reconoció que había que hacer una actualización y luego lo cubrió.

El Sr. Prada pregunta ¿entonces supuso coste al Ayuntamiento? respondiéndole el Presidente que no supuso coste al Ayuntamiento lo que supuso coste fue tener un perito que actualizará el valor los inmuebles, es decir, el único coste fue el perito que fue compartido con el Consorcio de Seguros.

El Sr. Prada pregunta ¿cuándo dices de capitales no actualizados también se habla de elementos no incorporados, como por ejemplo, la pista, el tartan...?, contestando el Presidente que todo el continente estaba incluido lo que no estaba eran los importes actualizados.

El Sr. Prada dice ¿entonces estaba infravalorado? a lo que el Presidente manifiesta que él no puede decir que estaba infravalorado porque estaba valorado en el momento que se contrató la póliza, lo que pasa en las pólizas si no se revisan....., preguntando el Sr. Prada si es un problema de gestión y contestando el Presidente que a veces es un problema de gestión o que se entra en una dinámica de voy actualizando y el seguro no presta demasiado atención pero tampoco hubo ningún problema cuando se actualizaron los valores.

El Sr. Prada se alegra en parte, porque hubo buen número de afectados que no fueron resarcidos o tratados de la misma manera que Getxo Kirolak, diciendo el Presidente que él solo puede hablar de Getxo Kirolak.

El Sr. Prada indica que normalmente dependiendo del perito que tenga el seguro te puedes encontrar con un acuerdo bueno o malo, parece que Getxo Kirolak tuvo un acuerdo bueno, normalmente cuando te encuentras con un seguro infravalorado...

El Sr. Uriarte interviene y dice que no es lo mismo infravalorado qué no actualizado, no es el mismo concepto para los seguros.

El Sr. Prada pone el ejemplo que sí yo tengo un bien que lo aseguro en cinco y el año que viene lo sigo en

mantentzen badu eta hurrengo urtean ere... ez dago eguneratuta, baina gutxietsita dago.

Uriarte jaunak ezetz erantzun dio, baina kasuaren arabera dela. Gutxietsita dago ondasun bat daukazunean eta bostean aseguratzeko duzunean. Desberdina da balio duen prezioan aseguratzeko eta aseguruak ez eguneratzea.

Prada jaunak adierazi du teknikoki horrela izango dela, baina praktikan peritu batekin talka egin dezakezula, auzokideekin gertatu den bezala...

Uriarte jaunak esan du kasu desberdina dela hori, eta ez du partikular bakoitzaren kasua tratatuko. Arazoa da hark bi kasu desberdin planteatu dituela: gauza bat da balioa gutxietea eta beste gauza bat poliza kontratatzean ongi balioztatzea eta ez eguneratzea. Izan ere, horietako bat zuzen daiteke, eta besteak ez du konponbiderik, balioa jatorritik gutxietsita zegoelako.

Prada jaunak esan du ados dagoela eta gertatukoari heltzen diola. Izan ere, praktikan eguneratuta ez zeukaten pertsonak egon direla eta aseguruek ez dutela haien erreklamazioa ase. Fadurak, ordea, perituarekin jorratu zuen, eta lortu zen.

Uriarte jaunak adierazi du ez duela zentzurik gauza bat bestearekin kontrajartzea, Getxo Kirolak kaltetuen kontra.

Prada jaunak esan du ez dela kontra joatea, zorionekoak baikara Getxo Kirolak-ek egoera konpondu zuelako diru publikoari gasturik eragin gabe.

Landa jaunak adierazi du, edonola ere, zoritxar handia izan zela Getxo Kirolak-entzat eta kaltetu guztientzat.

Prada jaunak adierazi du egoera ekonomikoaz aritu dela, jakiteko Getxo Kirolak-en aseguruen gaiak gasturik eragin duen, eta horrela izan ez bada, kudeaketak emaitza onak izan dituela, kaltetu asko egon direlako eta guztiok ez dugulako berdin bukatu.

EH-BILDUren GALDERA

1.- LANGILEEN TXOSTENA

Lehendakariak azaldu du pentsatu zuela Getxo Kirolak-en langileei buruz ari zirela, eta egindako txostena eman du. Rodriguez jaunak argitu du kirol-ikastaroei buruz ari zirela eta erantzungo dietela.

“PUNTA GALEA OLATU HANDIA” TXAPELKETA

Prada jaunak jakin nahiko luke Udalak edo Getxo Kirolak-ek diru-laguntzarik ematen duen “Punta Galea Olatu Handia” txapelketarako. Izan ere, zerbait irakurri du eta gaiari buruz jakin nahi du.

Lehendakariak jakinarazi dio 5.000 euro ematen zaizkiola Getxo Surf Taldeari, ekitaldia antolatzeko, eta Getxo Kirolak-ek, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Turismo

cinco y el siguiente lo sigo en cinco ... no está actualizado pero está infravalorado.

El Sr. Uriarte dice no, pero depende, infravalorado es cuando tienes un bien y lo aseguras en cinco, si lo aseguras por el precio que vale y luego el seguro no lo actualiza es diferente.

El Sr. Prada dice que técnicamente será así pero en la práctica se refiere que te puedes encontrar con un perito como ha pasado con vecinos...

El Sr. Uriarte dice porque es un caso diferente pero no está tratado a cada particular pero el problema que tú planteas son dos casos diferentes, una cosa es infravalor y otra cosa es que no este actualizado cuando estaba correctamente valorado al contratar la póliza, porque una cosa se puede corregir y la otra no, tiene corrección posible porque de origen esta infravalorado.

El Sr. Prada dice que está de acuerdo y a los hechos se remite, pues en la práctica también ha habido personas que no lo tenían actualizado y los seguros no contentaron su reclamación y Fadura trabajó vía perito y se consiguió.

El Sr. Uriarte indica que no tiene ningún sentido de contraposición una cosa con otra, Getxo Kirolak contra los afectados.

El Sr. Prada dice que no es ir en contra, dice que estamos de enhorabuena porque Getxo Kirolak solventó esta situación sin que supusiera un gasto para la saca pública.

El Sr. Landa manifiesta que en todo caso fue una desgracia para Getxo Kirolak y para todos los afectados.

El Sr. Prada dice que está hablando de una situación económica por si ha supuesto un desembolso el tema de los seguros de Getxo Kirolak sino ha sido así ha habido una gestión que ha llegado a buen puerto, porque afectados ha habido muchos y no todos salimos igual.

PREGUNTA EH-BILDU

1.- INFORME DE LA PLANTILLA DE TRABAJADORES

El Presidente informa que se ha entendido que se refería la pregunta a la plantilla de Getxo Kirolak y facilita el informe confeccionado, aunque el Sr. Rodriguez señala que se trataba de los cursos deportivos y que ya les contestarán.

CAMPEONATO “OLA PUNTA GALEA”

Al Sr. Prada le gustaria conocer si el Ayuntamiento o Getxo Kirolak realiza alguna subvención económica para la realización del Campeonato “Ola Punta Galea”, pues ha leído algo y es para conocer el tema.

El Presidente informa que se otorga 5.000 euros al club Getxo Surf Taldea por la organización del evento y las infraestructuras algunas subvenciona Getxo

Sailak diruz laguntzen dituztela azpiegituretako batzuk. World Surf Leage-k jartzen du Surfliarien sariei dagokien guztia. Hobekuntza Teknikorako Zentroarekin ere lankidetzaren bat badugu, ostatu har dezaten.

Prada jaunak argitu nahi du galderaren arrazoia dela iaz ez zela txapelketarik egin, ez zelako olatu egokirik egon garai horretan. Udalaren kasuan laguntza ekonomikoa handia izan denez, jakin nahi du garai horretan egiten ez bada beste momenturen batean egin daitekeen, eta adierazi du ona izan zitekeela Getxok txapelketa galdu ez izana.

Lehendakariak azaldu du antolatzaileekin hitz egin dutela, eta nahiz eta interesa handia dagoen, nazioarteko zirkuitua izatea ez dela garrantzitsuen. Esan digute ekitaldia egitekotan, data horietan egin behar dela, sasoi horretan sartzen direlako itsasaldi biziak. Gainera, antolakuntzari dagokionez ere, tokian edo nazioartean egin beharreko lana ez da berdina, hau da, behin edo birritan egitea, eta oihartzun gutxiago izateak kostuak eragiten dizkiela babesleen aurrean.

Prada jaunak adierazi du horregatik ezagutu nahi zuela Udalarekiko duten mendekotasun ekonomikoa. Lehendakariak jakinarazi dio Udalarekiko mendekotasuna oso txikia dela. Hasieran, zirkuitua nazioartekoa ez zenean, mendekotasuna handiagoa zen; baina surf-elkarte profesionala sartzean, Udalak langileak eta zenbait azpiegitura jartzen ditu. Kostu osoa 150.000 eurokoa izan daiteke, eta, beraz, guk 5.000 euro eta udaltzainen lanorduak jartzea ez da asko. Haiek emandako arrazoia da uste dutela, tokiko ekitaldi bat izanez gero, balioa galduko lukeela. Nolanahi ere, edozein ekitalditan gaiari buruz dakitenengan fidatzen gara, eta kasu honetan, surfaren munduko jendea dira horiek.

Prada jaunak esan du iaz, kasualitatez, data horien ostean pare bat itsasaldi bizi egon zirela, baina tira... Lehendakariak azaldu du daten arazoa dela olatu handiko bi data daudela irekita: Getxon bat eta bestea Hawaii edo Mexikon. Ezin dituzte bi baino gehiago ireki, eta, hortaz, European bat irekitzen dute eta beste bat Amerikan. Hemengoa ixten denean, beste bi irekiko dira.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, akta honen goiburuan adierazitako eguneko 18:05ean amaitu da bilkura.



Lehendakaria / El Presidente

Kirolak, Diputación y Turismo del Gobierno Vasco, todo lo relativo a los premios de los surfistas lo pone la World Surf Leage. También tenemos alguna colaboración con el CPT para que se alojen.

El Sr. Prada quería aclarar que la pregunta iba al hilo porque no se celebró el pasado año el campeonato ya que la ola adecuada no coincidió con el periodo y quería preguntar si en el caso que el Ayuntamiento cuyo apoyo economico ha sido importante y fuerte si no se celebra en ese periodo pudiera celebrarse en otra fecha y hubiese estado bien si Getxo no perdiese el campeonato.

El Presidente participa que se ha hablado con los organizadores y aunque interesa mucho, tampoco es lo más importante que sea un circuito internacional y nos dicen que el evento, de celebrarse se tiene que celebrar en esas fechas, que es cuando entran los maretones y el despliegue de organización que les supone a nivel local o internacional es el mismo, osea que de hacerlo una o dos veces y que la repercusión sea menor tambien les supone costes de cara a los patrocinadores.

El Sr. Prada manifiesta que por eso quería conocer la dependencia económica que tienen del Ayuntamiento informando el Presidente que la dependencia del Ayuntamiento es muy pequeña; al principio, cuando no era circuito internacional si era mas importante la depencia pero al entrar la asociación profesional de surf evidentemente se pone personal del Ayuntamiento y cuatro infraestructuras, comparado con el coste global que puede ir rondando los 150.000 euros que nosotros pongamos 5.000 euros, las horas de la policía municipal, entonces no supone demasiado. La razón que dan ellos es porque creen que se devaluaría el evento si se celebraría de forma local. En cualquier caso, en cualquier evento nos fiamos al final de los que saben del tema, que en este caso son la gente del surf.

El Sr. Prada dice que casualmente el pasado año al de poco de pasar las fechas hubo un par de maretones pero bueno ... y el Presidente informa que el problema de las fechas es que tenemos abierto dos fechas de ola grande, una es la de Getxo y otra, en Hawaii o Mexico pero no pueden abrir más de dos, entonces abren una en Europa y otra en America y cuando se cierren la de aquí abrirán otras dos.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:05 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.



Idazkaria / El Secretario